

CUERNAVACA, C'EST FINI

Hamabost bat urteko bizitzaren ondoren, Cuernavaca bilgunea itxi egingo da. Ivan Illich-ek beste bide batzu urratuko ditu.

Baina Cuernavaca zer da?. Hirurehun eta berrogei eta hamar liburu atera duena; Latin Ameriketako herri kultur eta sineskera gaietan ehun mila erreferentzia baino gehiago bildu dituen liburutegia; hamasei milatik gora lagunek parte harturik ehundaka mintegi ospatu dituena. Hori dena egin ondoren, desagertu eginen da CIDOC ezaguna (Centro Intercultural de Documentación).

Mexikoko bilgune hau Ivan Illichena bezala zen ezagutua. Asko eta asko hara "Ivan Illich-en irakatsiak hartzera joaten zen". Bertara iristerakoan, hartzera ez baino zerbait egitera etorri zirela konturatzen ziren. Izan ere, Ivan Illich entzule eta parte hartzaile eta biltzaile bezala ikusi ohi zuten. Ivan Illichek argitan jarri dituen lanak ez baitira demiurgo batenak, eta bai lantaldean eginak.

Illichen "sintesi" famatu horik urte luzetako lanaren fruitu dira. Urtetako lana eta ekipoan egina. Hala nola, eskola sistimaren kritika, midikuntza sistima hauzitan jartzea, garraio bidean sistimaren kritika. Lan hauk denak, esan bezala, ekipoan egiteaz gain, urtetan pentsatuak dira. Esaterako, eskola hauzitan jartzeak 1968tik 1971era iraun zuen, bakoitzak bere nazioan landu ondoren, lau udatan Cuernavacan bildurik aztertuz.

Bi garai bezala daude CIDOCen bizitzan. Bat (1961-1968) batik bat Hego Ameriketara zihoazten mixiolariari eskainia. Kulturen arteko zentro honetan zera ikasten zuten, alegia, Mendebaleko inperialismoaren zerbitzari eta herri kultura zaharren enterratzaile izan zitezkeela. Joateari uko egiten omen zioten apaiz eta erlijioso batzuk.

Bigarren aldiz, ostera, arras desberdina da. 1968tik Unibertsitate paralelo baten lana egin izan du, gainerontzeko ikas-erakundetan lekurik ez zuten gaiak plazara atereaz. Aipaturiko gai hauk eta beste mila bigarren bizialdi honetakoak dira.

Orain CIDOC desagertzen bada, ez da berez hiltzen. Erabaki baten kolpez baizik. Baina ez kanpoko inork beharturik edo kontseilaturik. CIDOCek berak erabaki du desagertzea. Dirurik ba zuten, laguntzeko mezenasik ba zen. Lanik era ba zuen.

Jadanik bere egitekoa bete duelako izkutatuko da CIDOC. Fondatzaile eta eskuhartzaileen eritzian, ez du gehiago bizitzeko arrazoirik. Erakunde gisa irauteak ez du mezezi, bere buruaren zerbitzari bilakatuko litzake eta. Nahi izan zen helburua lortu delarik, hiltzea erabaki dute. Adiskide mailako harremanak eginik daude; holatsuko liburuak ateratzeko ba dira orain hiru editore; mintegi gaiak eta ez dira orain CIDOCen monopolio, eta ez dute orain lehengo indar iraultzailerik...

Kanpoko diru languntzarik ere ez dute onartzen, helburuen eta bidegailuen arteko batasunzaleak direlako autogestioaren defendatzaileak izanik. Beren lanetik bizi nahi izan dute beti.

CIDOC amaitu arren, CIDOCekoak mundo osora barreiatuko dira. Zihur egon gaitezke Ivan Illichek lur eta pentsamolde berriak idoroko dituela.

Joan Altzibar.

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa
ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

Bertorako	500 pezeta
Latin Amerikarako	550 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako	700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.
D.L. BI-1753-67

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5
Posta kaxa 495. tel. 4237449

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko txartela eta bidal helbide honara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel